

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bizikletan ibiltzean sortutako energia erabiltzen duen kargagailua produktu berritzailea da, eta merkatuko hainbat segmentu erakar ditzake.

Kirola egiten duten edo hirian bizikletaz ibiltzen diren 18-30 urteko gazteentzat balio dezake, eta kirola egiten edo garraiatzen ari diren bitartean gailuak kargatu behar dituztenentzat (mugikorra, aurikular inalanbrikoak, argiak, etab.)

Langileentzat ere balio dezake, bizikletan ibiltzen direnentzat, banatzaileentzat, postarientzat...

Bizikleta eguneroko garraio gisa erabiltzen den hiriguneetan erabil daiteke gailu hori, baita bizikletaz bisita daitekeen turismo egiteko hirietan eta klima ona eta txirrindularitza-denboraldi luzeak dauden tokietan ere.

Merkatu masiboa da, gure bezeroak behar edo arazo antzekoak dituzte, pertsona ugariak dira. Gure bezeroak bizikletan ibiltzen dutenak eta gailu txikiak kargatu behar dutenentzat.

Bizikletan ibiltzean sortutako energia erabiltzen duen kargagailu bat merkaturatzeko, bezero segmentazioa egitea beharrezkoa da produktua norentzat egokia den ulertzeko. Segmentazioa honela bana daiteke:

Cycle and Charge **16 urtetik gorako** erabiltzaileentzako pentsatuta dago. Gailuak kargatzeko kargadore honek, **klase ertain edo altuko pertsonen** beharrei erantzuten die, berrikuntza eta jasangarritasuna baloratzen dutenentzat aproposa izanik. **Teknologia modernoetan inbertitzeko** interesa dutenentzat erakargarria da, bai osasunarekiko eta ingurumenarekiko arduradunak diren erabiltzaileentzat, bai bizikletaren erabileraren bidez energia propioa sortzeko aukera bilatzen dutenentzat.

Gailuak kargatzeko kargadore hau, hainbat ingurunetarako egokitua dago: hirietan, eguneroko garraiorako irtenbide iraunkorra eskaintzen die erabiltzaileei; mendialde eta landa eremuetan, energia autonomoa behar dutenentzat baliagarria da; eta bizikleta-turismoan, autonomia eta gailuak erabilgarri izateko aukera bermatzen die bidaiariei.

Esan bezala bizikleta-turistentzat ezinbesteko laguntza da *Cicle and Charge*, bidaietan gailu elektronikoak egonkor mantentzeko energia-iturri autonomoa eskainiz. Hiriko mugikortasun erabiltzaileentzat, eguneroko ibilbideetan edo lanera joateko irtenbide jasangarria eta praktikoa da. Kirolariek eta entrenatzaileek energia-iturri iraunkor hau kirol-saioetan aprobeitza dezakete, entrenamendua eten gabe.

Honetaz gain, balio eta jarrera jasangarriak dituzten erabiltzaileentzat pentsatuta dago, bereziki ingurumenarekiko sentsibilitatea eta energia berriztagarrien aldeko interesa dutenentzat. Teknologia berritzaile eta jasangarriak gustuko dituzten pertsonak erakartzen ditu, bizikleta garraiobide aktibo eta ekologiko gisa erabiltzeko ohitura dutenentzat aproposa izanik. Bizitza estilo aktiboa dutenek, hala nola kirola eta naturarekin harreman zuzena baloratzen dutenek, bizikletaren erabileran autonomia handiagoa aurkituko dute, bai eguneroko mugikortasunerako, bai aisialdirako edo bidaietarako.

Segmentazio hau marketin estrategiak modu eraginkorrean diseinatzeko erabiliko dugu, bezero potentzialen beharrak eta interesak ulertuz. Mezua ingurumena errespetatzen duen eta mugikortasun autonomoa eskaintzen duen produktua da.